

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

2024an Arabako bolo modalitatea sustatu duten Legutioko udalerriko toki erakunde txikientzako dirulaguntza deialdiaren oinarri arauak

2025eko maiatzaren 21eko ohiko osoko bilkuran hartutako erabaki bidez, Arabako bolo modalitatea sustatzeko dirulaguntzen deialdiaren eta emakidaren oinarriak onetsi dira, eta horren testu osoa argitaratu da, jende guztiak horren berri izan dezan.

Behin betiko ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du.

ERREKURTSOAK

Interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hala ere, alde zuzenetik, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote alkate honi, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Aurrekoek gain, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango dute.

Legutio, 2025eko ekainaren 30a

Alkatea

NEREA BENGUA GARCÍA DE CORTÁZAR

2024an Arabako bolo modalitatea sustatu duten Legutioko udalerriko toki erakunde txikientzako dirulaguntza deialdiaren oinarri arauak

Legutioko Udalaren aurrekontuak irabazteko xederik gabeko kirol klub eta elkarteentzako dirulaguntzen aurrekontu partidak jasotzen ditu. Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa 2.100,00 euro da, eta 341.434.010 aurrekontu aplikazioaren kontura finantzatuko da.

Horregatik, eta aipatutako erakundeek dirulaguntzak eskuratu ahal izan ditzaten errazteko eta aurrekontuan jasotako ekintzen publizitatea bermatzeko xedez, honako oinarri hauek ezartzen dira:

1. Deialdiaren xedea

Aurrekontu mugak errespetatuz, kirol jarduerak eragindako gastuen finantzaketan laguntzea 2024an Arabako boloaren kirol modalitatea udalerrian sustatu duten Legutioko toki erakunde txikiei, edo udalerriarentzat interesgarri jotzen badira.

2. Onuradunak erakunde laguntzaile gisa

Legutioko udalerriko toki erakunde txikiak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradunak, erakunde laguntzaile gisa.

3. Diruz laguntzeko moduko programak

Legutioko udalerriko toki erakunde txiki guztiak, baldin eta bolo taldeak badituzte parte hartzen Arabako txapelketan (Arabako Bola joko Federazioaren txapelketa ofiziala), 2024. urtean garatutako berariazko egutegiarekin (gehienez ere 2 talde diruz lagunduko dira toki erakunde txiki bakoitzeko).

4. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Dirulaguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da inolako betebeharririk izango deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko. Hauek izango dira dirulaguntzak emateko balioespen irizpideak:

a) Jarduera proiektuak edo programak interes publiko edo soziala izatea, bai eta proposatzen diren helburuek ere.

b) Udalerriko herrietan eragina duten eta bertako kultura eta kirol jarduerak sustatzen dituzten proiektu edo jarduerak izatea.

c) Erakunde eskatzailearen egonkortasuna eta kaudimena, eta aurkeztutako programaren jarraitutasuna.

d) Erakunde sustatzailekoak ez diren pertsonen kide direnen baldintza beretan parte hartu ahal izatea proiektuaren edo programaren xede diren jardueretan.

e) Dirulaguntzaren bitartez programa gauzatzea bermatzeko erakundeak dituen baliabideak (azpiegitura, materialak eta baliabide pertsonalak).

f) Programak edo jarduerak euskararen zabalkundean laguntzea.

g) Kontuan hartuko da eskatutakoak erakunde eskatzailearen diru baliabideekin duen proportzionaltasuna.

5. Dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzek kopuru finko bat izango dute, zeina udalbatzak erabakiko baitu (gehienez ere 700,00 euro taldeko), programaren kostuaren zati bat estaltzeko, eta garrantzitsua bezain kontuan hartzekoa da sustatzaileak gaitasuna izatea bere baliabideak sortzeko edo beste administrazio publiko batzuen bidez lortzeko.

Dirulaguntzen zenbateko osoa 2024rako esleitutako aurrekontu mugen arabera izango da.

6. Dirulaguntzak ordaintzea eta justifikazioa

Dirulaguntzak ordaindu ahal izateko beharrezkoak izango dira honako hauek:

— Diruz lagundutako jarduera edo jarduerak egiteak eragindako gastuen justifikazioa; gastu horiek behar bezala zerrendatu behar dira eta gastuen fakturak, ordainagiriak edo frogagiriak aurkeztu behar dira. Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituzten faktura, ordainagiri edo bestelako agiriak:

* Jaulkitzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

* Hartzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

* Gastuaren xedea.

* Data.

— Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren diru sarrera eta gastuen balantzea.

— Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren memoria.

Horiek guztiak 2024ko urteari dagokionak.

7. Eskabideak

Dirulaguntza hauek eskuratzeko interesa duten Legutioko toki erakunde txikiek, hala adierazi beharko dute Legutioko Udalean emango zaien inprimakian (l. eranskinean dago). Horrez gainera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.
- b) Ordezkarri gisa jarduten duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, baldin eta eskaera orria izenpetzen duena erakundearen lehendakaria bera ez bada.
- c) Jardueraren proiektua edo programa; honakoak azaldu behar dira, bereizita:
 - Lortu nahi diren helburuak.
 - Jardueraren egutegia (Arabako herri arteko egutegia eta InterLegutio egutegia).
 - Programaren edo jardueraren kostua.
 - Deialdi honetatik kanpo kudeatuko diren baliabideak.
 - Beste erakunde batzuen dirulaguntzak (Aldundia...). Zenbatekoa jakin ezean, 2023ko dirulaguntzaren zenbatekoa jarri beharko da.
 - Jarduera bakoitzeko sarrerak.
 - Bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kuota.
 - Taldeko kideen zerrenda (federazioko alteen zerrenda).

Onuradunek konpromisoa hartzen dute Legutioko Udalak eskatzen dizkien datuak eta dokumentazioa emateko, egiten dituzten jarduerari dagokienez.

8. Epea

Eskaerak aurkezteko epea: 20 egun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaera orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo agiri horiek osatu gabe badaude, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei antzemandako akatsak zuzentzeko, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horren ondoren akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da.

9. Dirulaguntza galtzea

Legutioko toki erakunde txiki onuradunek deialdi honen bidez emandako dirulaguntza gal dezakete, aurrez espediente irekita, kasu hauetan:

- a) Aurkeztutako eskaerak edo agiriak gezurrezko datuak badituzte.
- b) Emandako dirulaguntza ez bada erabili aurkeztutako eta onartutako programan aurreikusten diren jardueretarako.
- c) Oro har, oinarri hauetan edo dirulaguntzak emateko erabakian finkatutako betebeharren bat betetzen ez bada.

10. Kolaborazioak

Kirol zabalkunderako kanpainak gauzatzeko egokia irizten zaion kasuetan, Legutioko Udalak, dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera, elkarte edo klub onuradunek gauzatu beharko dituzten lankidetzak erabakiko ditu.

Dirulaguntza jasotzeko baldintza izango da entitate onuradunak udalerrian gutxienez kirol eta kultura jarduera bat edo beharrezko jotzen direnak antolatzea eta antolatzen laguntzea.

11. Dirulaguntzak emateko prozedura

1. Dirulaguntzak alkateak emango ditu, norgehiagoka bidez, kiroleko informazio batzordeak proposatuta, eta udalbatzak dagozkion oinarriak onetsi ondoren. Proposamen hori egiteko, batzordeak egokitzen jotzen duen aholkularitza teknika eskatu ahal izango du.

2. Informazio batzordeak ezin izango du inola ere proposatu oinarri arautzaileetan ezarritakoa betetzen ez duten dirulaguntzak ematea.

3. Zalantzarik izanez gero oinarri hauek interpretatzean, Legutioko Udaleko Kirol Batzordeak argituko ditu.

12. Araudia

Oinarri arau hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, eta Legutioko Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza, 2005eko martxoaren 21eko ALHAOn argitaratua.

13. Berdintasuna

Elkarteak berak edo haren izenean hirugarrenek sortutako behin betiko edozein dokumentu idatzi edo digitaletan hizkera ez-sexista erabili beharko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua betetzearen. Era berean, emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen zaindu beharko du erakundeak, bai eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, askotarikotasunaren, erantzukidetasunaren eta rol nahiz genero identitateen pluraltasunaren irudia sustatu ere, informazio idatzian, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate ekintzetan, barneko eta kanpoko komunikazioan, komunikazio formalean eta informalean, eta proiektua edo jarduera gauzatzearekin lotutako materialetan.

14. Euskara

Ahal den guztietan, inprimakiak, kartelak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz baino ez dira egingo. Bi hizkuntzetan eginez gero, euskarazko testua lehenetsiko da, Legutioko EBPnren 2.3 puntuan (hizkuntzak erabiltzeko irizpideak) adierazitakoaren arabera.

Eskola kiroleko adinean dauden haurrentzako jardueretan euskararen erabilera lehenetsiko da, baldin eta begiraleak gaituta badaude; bestela, jardueretan euskararen erabilera bermatzeko neurriak hartu beharko ditu elkarteak.